

## PRENTSARAKO OHARRA

18/11/15

### **Adimen urritasuna edo urritasun psikikoa daukien artistek bardintasunari buruzko eta genero indarkeriaren kontrako gogoetea egin dabe "ANÓNIMA" erakusketaren bitartez**

Bizkaiko Batzar Nagusien *ANÓNIMA* erakusketea inauguratu dabe gaur, Emakumeen kontrako indarkeria desagertuazoteko Nazinoarteko eguna dala eta egin dan oso gogoeta berezia, adimen urritasuna eta urritasun fisikoa daukan persona talde batek azken hilebeteetan egindakoa.

Hainbat erakusketa bisitatu ostean eta hainbat sortzailek erabilten dituen teknikak eta asmoak ezagutu eta gero, Bilbao FormArteko hogeitak artistak bardintasunaren ganean daukien ikuspegia eta genero indarkeriaren kontrako gogoetea irudikatu dabe euren miesetan.

Euren inguruko museoetara edo erreferentziazko kultur eta historia gunetara egindako bisitak dira irabazi asmorik bako alkarte-eskola horrek sorkuntza artistiko prozesua indartzeko aurrera daroazan jardueretako batzuk. Aurton, artistek Elisa Ortega Montillaren *La Historia no contada* erakusketea, Marienean dagon Dolores Ibarruri Aretoa, Artzeniegako Santxotena Museoa eta Gasteizko Araba Sarea bisitatu ditue.

Kultur ibilpide horri esker, Bilbao FormArteko ikasleek, gaur Bilbon, Batzar Nagusietako erakusketa aretoan, aurkeztu dituen 19 artelanak sortzeko lehenengo ideak barruratu ahal izan ebezan. Historian zehar oso garrantzitsuak izan diran figurak, Frida Kahlo, Dolores Ibarruri eta Eulalia de Abaitua, edo emakumeen kontrako indarkeriaren ganeko gogoetea izan dira Bilbao FormArteko hogeitak artisten inspirazio iturriak.

“Pozez eta kolorez betetako artelanak, eta teknika eta euskarri askogaz landutakoak” dira, Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako Bilboko egoitzan erakusketaren aurkezpen ekitaldian azpimarratu dauen moduan. Bertan, “emakume anonimo asko ikusgai bihurtu ditue, historian eta artean merezi daben lekua bete daien”.

Urtarrilaren erdialdera arte, erakusketa aretoak jasoko dauen erakusketan, artistek, “oihu feminista eta errebindikazinokoa egiten dabe, joan dan martiaren 8ko geldialdian parte hartu eta gero”, Batzar Nagusietako presidentearen berbetan. Egun horrek bere lekua dauka erreserbata erakusketan.

Joan dan martiaren 8an bardintasunaren aldeko burrukarengaitik deitu zan geldialdira joan eta gero, artista bik, Marisa Gonzálezek eta Claudia Aguinagak, hiru saretez osatutako instalazio interaktiboa aurkeztu dabe. Bertan, sortzaileek, sareta bakoetean hainbat koloretako besokoak jarteko konbitea egiten deutse ikusleei. Lehenengoan, besoko baltzak, 2018an eraildako emakume baten izenagaz eta hil eben egunagaz;

bigarrean besoko moreak, emakumeentzat beharrezkotzat dirala uste diran errebindikazioak; eta hirugarrean besoko zuriak, bakotzak bere asmoak eta genero bardintasuna lortzeko ideak idatzi daizan.

Artistak, Bilbao FormArteko, urritasun psikikoa edo adimenekoa daukien personentzat sorkuntza artistikoaren bitartez garapen pertsonaleko programea eskintzen dauen prestakuntza zentroko, kideak dira. Ana Urgoitik, zentroaren sortzaileetako batek, azaltzen dauen moduan, *ANÓNIMA* erakusketak “artelanagaz beragaz alkarrekintzan aritzera” konbidetan dau. Esperientzia horretatik, Urgoitik, “harrotasunez”, “genero bardintasunaren ganeko lezio hori emoteko daukien ahalmen itzela” azpimarratzen dau.

Erakusketa Aretoan eskegita dagozan artelan horreen atzean, azken finean, *ANÓNIMA* erakusketegaz gertatzen dan moduan, denpora luzez anonimoak izan diran artistak dagoz”, baina, halanda be, “izena, abizenak, adina, generoa, gurariak, beharrak... ditue, eta gure gizarteko kide dira, gutako bakotxa moduan”.

Beste behin, Bizkaiko Batzarrek, Lurraldean aritutako artisten beharra gizarte osora helduazoteko bozgorailu izan gura dauen lekua eskintzeko apustua egiten dabe. *ANÓNIMA* erakusketea apustu horren beste adibide bat da. Urtarrilaren 15era arte egongo da zabalik, Bizkaiko Batzar Nagusien egoitzako Erakusketa Aretoan (Hurtado Amezaga, 6 – beheko solairua. Bilbo), 08:00etatik 20:00etara, astelehenetik barikura. Sarrera librea da.

NOTA DE PRENSA

15/11/18

## **Artistas con discapacidad intelectual o psíquica reflexionan sobre la igualdad y contra la violencia de género a través de la exposición *ANÓNIMA***

Las Juntas Generales de Bizkaia han inaugurado hoy la exposición *ANÓNIMA*, una reflexión muy especial en torno al Día Internacional para la eliminación de la violencia contra las mujeres, que un colectivo de personas con discapacidad intelectual y psíquica ha llevado a cabo durante los últimos meses.

Tras efectuar diversas visitas a diferentes exposiciones, y empaparse de la técnica y la intención de diferentes creadores y creadoras, veinte artistas del centro formativo Bilbao FormArte han plasmado en lienzos su particular visión sobre la igualdad y su reflexión contra la violencia de género.

La visita a museos o centros culturales e históricos de referencia de su propio entorno, son algunas de las actividades que esta asociación-escuela sin ánimo de lucro desarrolla para potenciar el proceso de creación artística. Durante este año, los y las artistas han visitado la exposición *La Historia no contada* de Elisa Ortega Montilla, la Sala Dolores Ibaruri en Marienea, el Museo Santxotene de Artzeniega y la Red Álava de Gazteiz.

Un recorrido cultural que permitió a los alumnos y alumnas de Bilbao FormArte recoger sus primeras ideas para crear las 19 obras que hoy han presentado en Bilbao en la sala de exposiciones de la Cámara vizcaína. Figuras tan importantes en la historia como Frida Kahlo, Dolores Ibaruri y Eulalia de Abaitua, o la reflexión sobre la violencia contra las mujeres, ha logrado inspirar a una veintena de artistas de Bilbao FormArte.

Unas obras “alegres y coloristas, además de trabajadas con múltiples técnicas y soportes”, tal y como ha destacado Otadui en la presentación de la muestra en la sede bilbaína de Juntas Generales, en las que logran visibilizar “a muchas mujeres anónimas para que ocupen el lugar que merecen en la historia y en el arte”.

Hasta mediados de enero la sala de exposiciones acogerá una muestra en la que los y las artistas, en palabras de la presidenta de las Juntas Generales, lanzan “un grito feminista y reivindicativo después de haber participado en el planto del pasado 8 de Marzo”. Una fecha que tiene reservada su propia parcela en esta muestra.

Tras acudir al planto por la lucha de la igualdad, convocado el pasado 8 de marzo, dos de las artistas, Marisa González y Claudia Aguinaga, han presentado una instalación interactiva compuesta por tres rejillas donde, las creadoras, invitan al público a colocar brazaletes de diferentes colores en cada una. En la primera, brazaletes negros con los nombres y fechas de cada mujer asesinada en 2018; en la segunda, brazaletes morados con las reivindicaciones que se crean necesarias para las mujeres; y en la tercera,

brazaletes blancos donde las artistas invitan a que todos y todas escriban sus deseos e ideas para alcanzar la igualdad de género.

El colectivo de artistas forma parte de Bilbao FormArte, un centro formativo que ofrece un programa de desarrollo personal a través de la creación artística para personas con discapacidad psíquica o intelectual. *ANÓNIMA* invita, tal y como explica Ana Urgoiti una de las fundadoras del centro, “a interactuar con la propia obra”. De esta experiencia, Urgoiti destaca “con orgullo” la “gran capacidad que tienen de darnos esta lección sobre la igualdad de género”.

Tras estas obras que cuelgan de la Sala de Exposiciones se encuentran, en definitiva, “artistas que, al igual que la muestra *ANONIMA* también han permanecido mucho tiempo en el anonimato”, pero que sin embargo “tienen nombre, apellidos, edad, género, deseos, necesidades... y forman parte de nuestra sociedad como cada uno y cada una de nosotros y nosotras”.

Una vez más, el Parlamento de Bizkaia sigue apostando por ofrecer un céntrico espacio que sirva de libre altavoz para hacer llegar a la sociedad el trabajo de artistas formados en el Territorio. La exposición *ANÓNIMA* es otro ejemplo de esta pretensión. Permanecerá abierta hasta el 15 de enero en la céntrica Sala de Exposiciones de las Juntas Generales de Bizkaia (C/Hurtado de Amezaga, 6 – planta baja. Bilbao), en horario de 08:00 a 20:00 horas, de lunes viernes. La entrada es libre.